En 2019 se renovó el tejado y se pintó el interior. Durante el año largo que ha durado la obra, los vecinos han realizado la restauración de la puerta de entrada, los retablos del altar mayor, dedicado a San Martín, el de San Sebastián, el de la Virgen del Rosario, el viacrucis, el suelo, el púlpito y los bancos del atrio. También se ha comprado un piano, tiene nueva iluminación interior y un sistema de ventilación natural que permite mantener el interior en las mejores condiciones; los bancos han llegado de Barcelona donados por las Siervas de María y el campanario se ilumina por la noche señalando el edificio. El 31 de julio, el Arzobispo de Pamplona, Francisco Pérez celebró una misa a la que acudieron todos los vecinos y celebraron el éxito de su trabajo y que parte de su patrimonio seguirá vivo para las nuevas generaciones.



## UDA KO KANPALDIEN ARRAKASTA HANDIA

Udalak eta Zubilanek uda honetan antolatu dituzten kanpaldien 6 asteak biziki arrakastatsuak izan dira. Osasun-agintariek pandemiaren ondorioz ezarritako segurtasun-arau eta gomendio guztiak kontuan hartuta, Zubilan udal-elkarteak kanpaldiak antolatu zituen Zubirin, Ollokin eta Eugin 4 eta 12 urte bitarteko haurtzat, ekainean hasi eta irailaren hasierara arte.

Zubirin euskaraz murgiltzeko kanpamentuak izan ziren, igeriketa eta emozio tailer eta guzti, eta ingelesezko kanpaldi bat ere izan zen, igeriketa jarduerarekin. Ollokin jarduera ugari eskaini ziren, Oteiza Museora eta Iruñeko Alde Zaharrera bisita gidatuak barne. Eta Eugin, natur-jarduerak, emozioak lantzeko tailerrak eta armaolara bisitak ere bai. Kanpaldietan, guztira, bailarako 126 neska-mutilek hartu dute parte.

Honetaz gain, CNAIrekin (Hizkuntzen Autoikaskuntzarako Nafarroako Zentroa) lankidetzan, ingelesezko hiri-kanpaldiak antolatu ziren Ollokin, eta 93 haurrek hartu zuten parte. Zubiriko kiroldegiko igerilekuan ere jolasak eta jarduerak egin ziren ingelesezko kanpaldiaren baitan.

## INBULUZKETAKO SAN MARTIN ELIZA AUZOLANEAN BERRITUTA

2017an, teilatu berriaren beharrean zen Inbuluzketako San Martin parrokia-eliza txiki eta ederra. Hezetasunaz gain, hondatze-maila handia zen, hortaz, urte hartako urrian, Inbuluzketako Kontzejuak Nafarroako Gobernuari mezenasgo bat eskatzea erabaki zuen. Honi esker, dohaintza ugari lortu eta aurrekontuaren zati bat ordainduta, Santiago Quemada apaizaren laguntzarekin artzapezpikutzarekin akordioa lortu zuten. Auzolana egin zuten beste guztia konpontzeko.

2019an teilatua berritu eta barrualdea margotu zen. Lanak iraun duen urte luzean, bizilagunek zaharberritu egin dituzte sarrerako atea, San Martinen omenezko aldare nagusiko erretaulak, Sebastian Deuna eta Arrosarioko Ama Birjinaren erretaulak, kalbarioa, zorua, pulpitu eta atrioko bankuak. Piano bat ere erosi dute, argiztapen berria jarri diote barruan eta aireztapen sistema natural bat, barnealdean baldintzarik onenetan mantentzea ahalbideratzen duena. Mariaren Zerbitzariek emaniko bankuak Bartzelonatik ekarri dituzte, eta kanpandorea gabez argizatzen da orain, erakina nabarmenduz. Uztailaren 31n, Iruñeko Artzapezpi-ku Francisco Perezek meza egin zuen elizan, herritar guztiak bertaratu ziren eta pozik ospatu zuten euren lanaren arrakasta. Denen artean egindako lanari esker, herriko ondarearen zati batek bizirik iraunen du belaunaldi berrientzat.

## SER GANADERO EN ESTERIBAR, UNA VIDA LIGADA A LA TIERRA

Ser ganadero no es tarea fácil, solo una fuerte vocación ayuda a sobrellevar los desafíos y las dificultades. Tal vez por esto son cada vez menos quienes eligen esta profesión, hoy quedan en el valle pocas personas con la ganadería como actividad principal, uno de ellos nos habla sobre su profesión.

Guillermo Eugui procede de una familia de ganaderos: "Soy ganadero desde hace 50 años. Es una profesión que requiere una dedicación total, los animales no tienen horas, pero es un trabajo que me gusta. Tienes que estar siempre atento; te dejan un portillo abierto y te causan un grave problema, los animales se escapan, tienes que ir a buscarlos y recoger el ganado en el monte supone muchas horas de andar sin parar. Añade, "con la pandemia ha venido mucha gente al valle, la mayor parte son respetuosos, pero con que uno no lo sea, nos causa graves problemas, es necesario más respeto y más sentido común".

"En mi caso no hay relevo familiar, pero en el valle hay jóvenes que se han animado a crear empresas ganaderas y hay que apoyarles. Aquí no estamos tan bien considerados socialmente como por ejemplo en Francia, no hay que ir muy lejos para verlo. En Francia los ganaderos son importantes, se unen y luchan por su profesión. La ganadería de pequeña explotación en extensivo es una gran protectora del Medio Ambiente, hace que prados y bosques se mantengan en las mejores condiciones, y si te das una vuelta, puedes verlo enseguida, verás dónde se trabaja y dónde no".

Guillermo añade: "Ser ganadero es una profesión complicada y muchas veces no nos sentimos apoyados. La Administración, desde los despachos toma decisiones equivocadas y todos pagamos las consecuencias. Menos prados, montes sucios y un mayor peligro de incendios. Prohibir las cabras fue desastroso, ellas eran las mejores desbrozadoras naturales y ahora es inviable económicamente mantener el monte limpio. En Esteribar tenemos problemas con los buitres. Por ejemplo en las peñas de Adorruga, cerca de Uetxi hay 80 buitres, siempre han anidado ahí y no se van a ir. Los animales muertos tenemos que recogerlos hasta que el camión los lleva a la incineradora de Andosilla, esto tiene un costo y una parte sale de tu bolsillo. Los buitres tienen hambre y comen lo que encuentran, no van a abandonar sus nidos, la primavera es época de cría y coincide con la del ganado, todos los años hay ataques a vacas parturientas o a crías recién nacidas. En los valles vecinos hay muladares, pero en Esteribar no, nos consideran "Zona de Aeropuerto", aunque los buitres eso no lo saben y siguen y seguirán volando por el valle".



## ESTERIBARREN ABELTZAIN IZATEA, LURRARI LOTUTAKO BIZITZA

Abeltzaina izatea ez da lan erraza; bokazio sendoak soilik lagun dezake horrek dakartzan erronkak eta zailtasunak gainditzen. Agian horregatik dira gero eta gutxiago lanbide hau aukeratzen dutenak. Gaur egun abeltzaintza jarduera nagusizat dutenak gutxi dira ibarrean, eta ondoko lerroetan jaso ditugu bertako abeltzain baten hitzak.

Guillermo Eugi abeltzain-familia batekoa da: "Abeltzaina naiz duela 50 urtetik. Erabateko dedikazioa eskatzen duen lanbidea da, animaliek ez baitute ordurik, baina gustuko lana da hala ere. Adi egon behar izaten da beti; ataka irekia utzi eta arazo larria sortzen baitizute, animaliek ihes egiten dute, haien bila joan behar duzu eta nekeza izaten da azienda mendian jasotzea, ordu asko eman behar izaten dira oinez gelditu gabe. Eugik gaineratu duenez, "pandemiaren ondorioz, jende asko hurbildu zaigu bailarara, gehienak begirunez, baina hala ez den bakar bat aski izaten da arazo larriak eragiteko. Errespetu gehiago behar da, eta zentzu handiagoa".

"Nire kasuan ez dago familia-segidarrik, baina bailaran izan badira abeltzaintza enpresak sortzera animatu diren gazteak, eta lagundu egin behar zaie. Hemen ez gaude sozialki Frantzian bezain ongi kontsideratuta, ez da urrutira joan behar hortaz ohartzeko. Frantziar abeltzainak garrantzitsuak dira, bat egiten dute, eta beren lanbidearen alde borrokatzen dira. Ustiapen estentsibo txikiak babes handia dira ingurumenarendako, belardiak eta basoak egoera onenean mantentzen baititu. Inguruan itzuli bat eginda, berehala ikusiko duzu non egin den lan eta non ez".

Guillermok hau gehitu du: "Abeltzaina izatea lanbide zaila da, eta maiz ez gara babestuta sentitzen. Administrazioak erabaki okerrak hartzen ditu bulegoetan, eta denok

ordaintzen ditugu ondorioak: pentze gutxiago, mendi zikinak eta sute-arrisku handiagoa. Ahuntzak debekatzeari ere desastrea izan zen, haiek baitziren sasi-garbitzeko makina naturalik onenak, eta orain ekonomikoki bideraezina da mendia garbi mantentzea. Esteribarren arazoak ditugu putreekin. Adibidez, Adorragako haitzetan, Usetxitik gertu, 80 sai daude. Beti han ibili dira eta ez dira handik joanen. Beraz, guk jaso behar izaten ditugu hildako animaliak kamioiak Andosillako erraustegira eramanez. Horrek badu kostu bat, eta zati bat geure poltsikotik ateratzen da. Putreak gose dira eta aurkitzen dutena jaten dute. Ez dituzte habiak utziko, udaberria hazkuntza garaia da eta bat dator ganaduaren garaiarekin. Urtero izaten dira erasoak erditzen duten behiei edo kume jaioberriei. Inguruko bailaretan "muladar" delakoak daude jaten emateko, baina Esteribarren ez. Gu "aireportuko eremutzat" hartzen gaituzte, nahiz eta putreek hori ez jakin eta ibarrean zehar hegan jarraitu".



## EL AUTOBÚS POR LA REPOBLACIÓN RURAL LLEGA A ESTERIBAR

Zubiri, como fin de la primera etapa del Camino de Santiago, recibió al "Autobús de la repoblación" de la Feria Nacional Presura para la repoblación de la España rural. En esta V edición, el autobús recorrerá pueblos y ciudades de la ruta del Camino de Santiago, elegida por la importancia que este ha tenido como espacio para la comunicación y el intercambio; para el flujo de ideas y proyectos. La iniciativa tiene como objetivo que los emprendedores descubran que el medio rural tiene mucho que ofrecerles, que puede ser un espacio de oportunidades para poner en marcha sus ideas o negocios. Que se llegue a ver la España rural como un mundo con futuro, un espacio de progreso y de innovación social, ante los retos que nos plantea el S. XXI.

A la cita en Zubiri en defensa del medio rural acudieron, además de la alcaldesa de Esteribar, Matilde Añón, el Consejero de Cohesión Territorial Bernardo Ciriza, que destacó la importancia del medio rural para el desarrollo social y territorial de Navarra.

En el encuentro participaron también el director general de Administración Local y Despoblación, Jesús M<sup>a</sup> Rodríguez; la directora general de Turismo, Comercio y Consumo, Maitena Ezkutari; la directora gerente del Instituto Navarro para la Igualdad, Eva Istúriz; el director gerente del Instituto Navarro de Juventud, Carlos Amatriáin; el director adjunto de Magnesitas Navarra, Jorge Baños; la gerente de la Fundación Universidad-Sociedad de la UPNA, losune Pascual; y el presidente de la Asociación Turística Nafar Basoak, Fernando Goñi.

La Feria Presura, iniciativa de la asociación soriana de emprendimiento social "El Hueco", es un referente en la lucha por la repoblación de la España rural, suscitando cada año la atención del mundo político, social, económico y mediático. La feria celebrará este año su V edición del 4 al 7 de noviembre en Soria bajo el lema "#ruralfemenino" centrada en destacar especialmente proyectos promovidos por mujeres, dirigidos a ellas o en los que las mujeres tengan una participación destacada.

A través del canal de YouTube PresuraTV, cada invitado explicó en qué iniciativas están trabajando, desde su ámbito de competencia, para conseguir la puesta en valor y la repoblación del medio rural.

Matilde Añón, en su intervención destacó las potencialidades del valle y la necesidad de apoyo por parte de las Administraciones para poder realizar proyectos dirigidos a fijar y atraer población a Esteribar.

## LANDA EREMUKO BIPOPULAKETAREN ALDEKO AUTOBUSA ESTERIBARRERA IRITSI DA

Donejakue Bidearen lehen etaparen amaiera gisa, Zubirin izan zen Presura Azoka Nazionaleko "birpopulaketaren autobusa" Espainiako landa eremuaren birpopulaketaren alde. Autobusa Donejakue bideko herri eta hirietan ibiliko da V. edizio honetan. Izan ere, bidea hautatu dute komunikaziorako eta trukerako gune gisa ideien zein proiektuen fluxurako izandako garrantziagatik. Ekimenaren helburua da ekintzaileak konturatzea landa-inguruneak asko duela eskaintzeko, beren ideiak edo negozioak abian jartzeko aukera eremua izan daitekeela. Landa-inguruneke Espainia etorkizuna duen esparru gisa ikustea da asmoa, XXI. mendeak planteatzen dizkigun erronken aurrean aurrepenerako eta gizarte-berrikuntzarako gune.

Landa-ingurunearen defentsan, Zubiriko hitzorduan Matilde Añón Esteribarko alkatearekin batera izan zen Bernardo Ciriza Lurralde Kohesioko kontseilaria ere. Besteak beste, Nafarroako gizarte eta lurralde-garapenerako landa-inguruneak duen garrantzia azpimarratu zuten.

Bertan izan ziren, halaber: Toki Administrazioiko eta Despopulazioko zuzendari nagusi Jesús M<sup>a</sup> Rodríguez; Maitena Ezkutari Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko zuzendari nagusia; Eva Isturiz Nafarroako Bertintasunerako Institutuko zuzendari kudeatzailea; Carlos Amatriáin Nafarroako Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzailea; Jorge Baños Magnesitas Navarrako zuzendari laguntzailea; losune Pascual NUPeko Uni-

bertsitate-Gizarte Fundazioko kudeatzailea eta Fernando Goñi, Nafar Basoak turismo-elkarteko presidentea ere.

"El Hueco" gizarte-ekintzailetzako Soriako elkartearen ekimena da Presura Feria, eta erreferentea da landa-eremuko Espainia birpopulatzeko borrokan, urtero pizten baitu inguru politiko, sozial, ekonomiko eta mediatikoaren arreta. Azoka azaroaren 4tik 7ra izanen da Sorian, "#ruralfemenino" lelopean.

Emakumeek sustatutako proiektuak nabarmendu nahi dira aurtengoan, emakumeei zuzendutako egitasmoak zein emakumeek parte-hartze nabarmena dutenak. Presuratv izeneko YouTubeko kanalaren bidez eman zuten gonbidatu bakoitzak bere eskumen-esparrutik landa-inguruneari balioa eman eta birpopulaketa lortzeko lantzen ari diren ekimenen berri.

Matilde Añón alkateak ibarraren potentzialtasunak nabarmendu zituen bere hitzaldian, eta Administrazioen aldetik herritarrek Esteribarren finkatu eta hona erakartzeko proiektuak egiteko laguntzaren beharra ere azpimarratu.



## CONCEJOS DE ESTERIBAR EUGI

Seguimos la serie dedicada a los Concejos de Esteribar. Hoy hablamos con el Presidente del Concejo de Eugi, Unai Seminario.

### ¿Desde cuándo eres presidente del Concejo de Eugi?

Comenzamos la legislatura en noviembre de 2020, tuvimos que cerrar el año y fue bastante complicado, hay que ponerse al día en un montón de asuntos, y aprender a trabajar telemáticamente, lo que te permite acceder a la información de forma más rápida y cómoda, y ahorra mucho tiempo. Tengo un gran equipo que me ayuda, si no, hubiera sido imposible. Hasta que no estás aquí realmente no sabes la cantidad de tiempo que hay que dedicar al Concejo.

### ¿En qué proyectos estáis trabajando?

"Proyectos no nos faltan: el arreglo de las pistas deportivas, un almacén para los materiales del Concejo y un pequeño parque para caravanas. Hemos arreglado el Cementerio y tenemos previstas también obras en varios edificios propiedad del Concejo. Seguimos con Centro de Referencia Histórica Olondo y estamos intentando que el Gobierno de Navarra equipare la Real Fábrica de Armas de Eugi a la de Orbaiceta, lo que nos permitiría acceder a más ayudas para continuar con las campañas arqueológicas en un espacio que ocupa una superficie de más de 10.000 m<sup>2</sup>. Seguimos con el proyecto transfronterizo Kintoan Barna, cofinanciado con Fondos Europeos Feder a través de un programa Interreg España-Francia-Andorra (POCTEFA) junto a otras 13 localidades desde Pamplona hasta S. Jean de Pied de Port; un proyecto muy ambicioso que trata de impulsar el turismo cultural y natural vertebrado a través del Quinto Real y en el que participamos con el Ayuntamiento de Esteribar y los Concejos de Larra-soaña y Zubiri. Con la pandemia han ido surgiendo nuevos retos, hemos tenido muchísimos visitantes y vemos la necesidad de reorganizar accesos y aparcamientos en el pueblo. Estos proyectos nos permiten crear empleo para gente de la zona, lo que es importante para nosotros.

### ¿Qué presupuesto tiene el Concejo de Eugi?

Este año es de 800.000 €, la mayor parte se va en personal y mantenimiento de pistas, edificios y servicios. Tenemos albergue, ludoteca, biblioteca, Centro Cívico con sala de ordenadores. Es importante la partida para trabajos forestales, tenemos muchísimo monte, más de 40 km de pistas forestales y varias rutas alrededor del pueblo y hay que mantenerlas, no olvidemos que casi un tercio del territorio de Esteribar pertenece a Eugi, y excepto el casco urbano, el resto es bosque.

### ¿Cuál es la relación con las otras administraciones?

En algún momento fue complicada pero ahora la relación con el Ayuntamiento es bastante fluida. Cuando hay buena voluntad por parte de todos, las cosas son más fáciles y los proyectos pueden ir adelante.

## ESTERIBARKO KONTZEJUA EUGI

Jarraipena emanen diogu Esteribarko kontzejuei eskaintako serieari: oraingo honetan, Eugiko Kontzejuko presidente Unai Seminarioekin solastu gara.

### Noiztik zara Eugiko Kontzejuko lehendakaria?

Legealdia 2020ko azaroan hasi genuen, urtea itxi behar izan genuen eta nahiko zaila izan zen, gai pilo batean eguneratu beharra dago, eta telematikoki lan egiten ere ikasi, izan ere, horri esker, informazioa azkarrago eta erosoago eskura dezakegu, eta denbora asko aurreztu. Talde handi bat daukat atzean laguntzen, bestela ezinezkoa izanen zen. Egia esan tokatu arte ez da jakiten zenbateraino eskaini behar zaion denbora Kontzejuari.

### Zein proiektutan ari zarete lanean?

Proiekturik ez zaigu falta: kirol-pistak konpondu, Kontzejuko materialentzako biltegi bat eta karabanentzako parke txiki bat ditugu eskuartean. Hilerria konpondu dugu, eta kontzejuaren jabetzako zenbait eraikinetan ere obrak egitea aurrekusi dugu. Olondo Erreferentzia Historikoko Zentroarekin aitzina goaz, saiatzen ari gara Nafarroako Gobernuak Eugiko Errege Arma Fabrika Orbaizetakoarekin pareka dezan; horri esker, laguntza gehiago eskuratu ahal izanen baikenituzke arkeologia-kanpaineekin jarraitzeko, 10.000 m<sup>2</sup> baino gehiagoko azalera hartzen duen eremuan. Kintoan Barna mugaz gaindiko proiektuarekin ere segitzen dugu, Feder Europako Funtsekin finantzaturako Interreg Espainia-Frantzia-Andorra (POCTEFA) programaren bidez eta Iruñetik Donibane Garaziraino dauden beste 13 herrirekin batera. Kintoan Barna asmo handiko proiektua da, Kintoaren bidez egituraturako turismo kultural eta naturala sustatzeko, Esteribarko Udalarekin batera eta Zubiri eta Larra-soañako Kontzejuekin elkarlanean. Pandemia egoerarekin batera herrian erronka berriak sortu dira, bisitari ugari izan ditugu, eta besteak beste, herriko sarbideak eta aparkalekuak berrantolatze beharra ikusten dugu. Proiektu horiei esker, inguruko jendearentzat enplegua sor genezake, eta hori garrantzitsua da guretzat.

### Zer aurrekontu du Eugiko kontzejuek?

Aurten 800.000 €-koa da, gehienak langile eta pisten, eraikinen zein zerbitzuen mantentze-lanetan. Eugin aterpetxea, ludoteka, liburutegia eta gizarte-etxea ere baditugu, ordenagailu-gela eta guzti. Basoko lanetarako partida ere handia da, mendi asko dugu, 40 km baino gehiagoko baso-pistak eta herriaren inguruko hainbat ibilbide, eta mantendu ere egin behar dira; kontuan izan behar da Esteribarko lurraldearen ia herena Eugirena dela, eta hirigunea izan ezik, gainerakoa oihana dela.

### Zer nolako harremana duzue beste administrazioekin?

Uneren batean zaila izan zen, baina orain udalarekiko harremana nahiko erraza da. Guztion aldetik borondate ona egonda, gauzak errazagoak izaten dira, eta proiektuak aurrera joan daitezke.





## EL "PALACIO DE OLLOQUI", LUCE SUS MEJORES GALAS

Antonio y Estíbaliz Correia Arrasate lo tenían muy claro: "Buscábamos un espacio donde celebrar eventos al aire libre y el emblemático Palacio de Olloqui nos pareció el lugar ideal". Así el noble e histórico edificio fue escogido para su proyecto. La institución Príncipe de Viana dio el visto bueno a la rehabilitación y en 2020, el noble y antiguo Palacio de Cabo de Armería con sus torreones, su patio de armas y sus jardines volvía a lucir sus mejores galas, convertido ahora en el lugar perfecto para la celebración de bodas y eventos privados de todo tipo: actos de empresa, presentaciones, comuniones o cualquier otra celebración tiene su sitio en este lugar con la historia y personalidad necesarias para hacer de un evento una experiencia inolvidable. "Tenemos capacidad para 700 personas. La pandemia nos pilló de pleno, pero al tener espacios al aire libre nos ha afectado menos y la situación se va normalizando. Estamos encantados con como marcha todo, ya tenemos reservas para este año y el próximo y estamos trabajando en la construcción de otro espacio con el mismo enfoque en el vecino Señorío de Arleta". Para los vecinos de Esteribar ha sido una gran alegría ver renacer de sus cenizas al Palacio más emblemático del valle.




## OLLOKI JAUREGIA BERE ONENA ERAKUTSIZ

Oso argi zuten Antoniok eta Estíbaliz Correia Arrasatek: "Aire zabaleko ekitaldiak egiteko lekua bilatzen genuen, eta Olloki jauregi enblematikoa leku ezin hobea iruditu zitzaigun". Hala, eraikin noble eta historikoa hautatu zuten euren proiekturako. Vianako Printzea erakundeak zaharbertitzeari oniritzia eman, eta 2020an, Armagintza Kaboaren Jauregi noble eta zaharrak, bere onena erakutsi zuen berriro ere bere dorre, arma-patio eta lorategi eta guzti. Gaur egun, leku ezin hobea da ezkontzak eta era guztietako ekitaldi pribatuak egiteko: enpresa-ekitaldiak, aurkezpenak, jaunartzeak edo beste edozein ospakizun, leku ahaztezina du leku horretan, historiarekin eta nortasunarekin. "Bertan 700 lagunentzako lekua dugu. Pandemiak bete-betean harrapatu gintuen, baina aire zabaleko espazioak izatean eragin gutxiago izan du, eta egoera normalduz doa. Poz-pozik gaude gauzak nola doazen ikusita, urte honetarako eta hurrengorako erreserbak baditugu jada, eta alboko Arletako jaurrean ere beste espazio bat eraikitzen ari gara". Esteribarko bizilagunentzat poz handia izan da jauregi ospetsua errautsetatik birjaio izana.

## MAGNA, 75 AÑOS COMPARTIENDO FUTURO

Magnesitas Navarras sigue de celebración, "realmente el 75 aniversario fue en 2020 pero todo lo previsto tuvo que dejarse en suspenso". Hablamos con Jorge Baños, su Director General Adjunto: "Creo que Magna está haciendo bien las cosas y me siento muy orgulloso. Para nosotros es muy importante la conversación con nuestro entorno, conjugar nuestros intereses con los intereses del entorno. Queremos celebrar este aniversario hablando de futuro. Pretendemos seguir generando riqueza y empleo. Somos conscientes de que la minería es una actividad que genera debate, pero es una industria esencial y estratégica, el óxido de magnesio es materia prima imprescindible en muy diversos campos: actividades agropecuarias, industriales, salud humana, recuperación medioambiental".



Jorge Baños añade, "queremos contar con el apoyo del entorno en que desarrollamos nuestra actividad, es vital para nosotros. Para la recuperación de la zona de explotación de la mina de Eugi a través de un novedoso Plan de Gestión de la Biodiversidad estamos trabajando con el naturalista Beltrán Ceballos, que lleva más de 20 años luchando por la conservación del Parque de Doñana. El futuro de Magna pasa por Artesiaga, no hay alternativa, sólo esta explotación permitirá la continuidad de la empresa, el mantenimiento del empleo y la creación de nuevas oportunidades de trabajo".

## MAGNA, 75 URTE ETORKIZUNA PARTEKATZEN

Ospakizunetan jarraitzen du Magnesitas Navarras taldeak, "2020an izan zen 75. urteurrena, baina aurreikusitako guztia bertan behera utzi behar izan genuen" dio Jorge Baños zuzendari nagusiak. "Uste dut Magna gauzak ondo egiten ari dela eta oso harro nago. Guretzat oso garrantzitsua da gure inguruarekin hitz egitea, gure interesak eta ingurunearen interesak uztartzea. Urteurrena etorkizunaz hitz eginez ospatu nahi dugu. Aberastasuna eta enplegua sortzen jarraitu nahi dugu. Badakigu meatzaritzak eztabaida sortzen duela, baina funtsezko industria estrategikoa da, magnesio oxidoa ezinbesteko lehengaia baita hainbat arlotan: nekazaritza eta abeltzaintza jardueretan, industria jardueretan, giza osasunean, ingurumenaren berreskurapenean".

Jorge Bañosek gaineratu duenez, "gure jarduera garatzen dugun ingurunearen babesa nahi dugu, ezinbestekoa da guretzat. Beltrán Ceballos naturalistarekin ari gara lanean Eugiko meatzeko ustiatze-eremua berreskuratzeko, Biodibertsitatea Kudeatzeko Plan berri baten bidez. Izan ere, berak 20 urte baino gehiago daramatza Doñanako parkearen kontserbazioaren alde borrokan. Magnaren etorkizuna Artesiagatik pasatzen da, ez dago alternatibarik, ustiapen horri esker soilik jarraituko baitu enpresak enpleguari eutsiz eta lan-aukera berriak sortuz".

"Para Magna es importante que vecinos, ayuntamiento y concejos nos conozcan bien; aunque es una actividad inocua, somos conscientes de que tiene un fuerte impacto sobre el paisaje, por eso queremos gestionar y planificar su recuperación con las mejores herramientas disponibles". "La minería atesora otra suerte de ventajas", añade, "es una industria que no se deslocaliza, el compromiso con el territorio donde se ubica el recurso mineral se mantiene a lo largo de la vida de la explotación, y el empleo que se crea abarca un amplio rango de cualificaciones profesionales". Actualmente entre la mina de Eugi y la planta de Zubiri, Magna da empleo a 232 personas.

## LA SALUD, ANTE TODO

### ¿QUÉ ES EL AYUNO INTERMITENTE?

Por José Javier Celorio  
Médico de Familia del Consultorio de Zubiri

El ayuno intermitente es una alternativa dietética que en los últimos tiempos se ha hecho muy popular en la sociedad y que muchas personas realizan. Básicamente se trata de restringir toda la ingesta diaria en un periodo de tiempo más limitado y, en consecuencia, aumentar el número de horas sin ingerir alimentos.

El ayuno se ha utilizado como terapia a lo largo de nuestra historia evolutiva; incluso en muchas culturas se incluyen periodos de restricción alimentaria durante el año (vigilia, mes de Ramadán, etc.). Pero no fue hasta el siglo pasado que empezó a estudiarse de forma científica. Aproximadamente a las 10 horas de la última ingesta se aumenta la liberación de los ácidos grasos y se produce una reducción de la insulina en la sangre de modo que el cuerpo comienza a obtener energía de la grasa en lugar de la glucosa. Además, aumentan otras hormonas, las catecolaminas, resultando en un aumento del metabolismo.

Si bien no es la panacea, lo cierto es que se trata de una herramienta segura que en determinadas situaciones puede ser saludable desde un punto de vista médico. En personas con resistencia a la insulina, con sobrepeso, el ayuno intermitente ayuda a recuperar la sensibilidad a la insulina en mayor medida que otros enfoques más clásicos como la restricción calórica o el tradicional patrón alimentario de realizar 5 comidas al día.

Todos hacemos ayuno intermitente durante el sueño nocturno. Si se prolonga esta ventana de ayuno a 12 horas, cenando antes o desayunando más tarde, ya podríamos empezar a notar muchos de sus beneficios (ayuno 12/12). Si compruebas que es útil para ti y que puedes integrarlo con facilidad en tu rutina habitual, puedes de forma progresiva ir alargando este periodo de ayuno hasta las 16h e ir agrupando todas las comidas en una ventana de 8 horas (ayuno 16/8).

En todo caso, no debemos olvidar que realizar ejercicio físico de forma habitual, asegurar un descanso nocturno suficiente y alimentarse de forma razonable con comida real evitando comidas y bebidas insanas es mucho más beneficioso para nuestra salud que cuando comemos. Salud y Fuerza.

"Magnarentzat garrantzitsua da bai bizilagunek, Udalak zein Kontzejuek ongi ezagut gaitzaten; izan ere, kalterik egiten ez duen jarduera izanda ere, jabetzen gara eragin handia duela paisaian, eta hain zuzen ere, horrexegatik kudeatu eta planifikatu nahi dugu paisaiaren berreskurapena eskura ditugun tresnarik onenekin". Erantsi duenez, "meatzaritzak beste abantaila batzuk ditu, industria ez da deslokalizatzen, baliabide minerala dagoen lurraldearekiko konpromisoa mantendu egiten da ustiapenaren bizitzan zehar, eta sortzen den enpleguak kualifikazio profesional ugari barne hartzen ditu". Gaur egun, Eugiko meategiaren eta Zubiriko lantegiaren artean, 232 langile ditu Magnak.

## OSASUNA LEHENTASUN

### OSASUNA OROREN GAINETIK: ZER DA ALDIZKAKO BARAUA?

(Zubiriko kontsultategiko familia-mediku J.J. Celorrioren kolaborazioa)

Aldizkako baraualdia alternatiba dietetikoa da, gizartean oso ezaguna egin dena eta pertsona askok egiten dutena. Funtsean, eguneroko otordu guztiak denbora laburragoan hartzea da helburua, eta, ondorioz, janaririk hartu gabeko ordu-kopurua handitzea.

Baraualdia terapia gisa erabili izan da gure eboluzio-historian zehar; kultura askotan ere elikadura murrizteko aldiak ere izaten dira (bijilia, Ramadanekeo hilabetea, etab.). Baina joan den mendera arte ez zen modu zientifikoa ikertzen hasi. Azken ahorakinetik 10 ordu ingurura, gutxi gorabehera, gantz-azidoen askapena handitzen da, eta odolean intsulina gutxitu; horrela, gorputza gantzatik hasten da energia lortzen glukosatik eskuratu beharrean. Gainera, katekologamien gisako beste hormona batzuk ere areagotzen dira, aldi berean metabolismoa areagotuz.

Panazea ez bada ere, tresna segurua da, eta egokira jakin batzuetan osasungarria izan daiteke ikuspuntu medikotik. Intsulinarekiko erresistentzia duten eta gehiegizko pisua duten pertsonen kasuan, aldizkako baraualdiak intsulinarekiko sentiberatasuna berreskuratzen laguntzen du beste ikuspegi klasikoago batzuk baino, besteak beste, kaloriak murriztu edota egunean 5 otordu egiteko elikadura-eredu tradizionala baino gehiago.

Denok egin ohi dugu aldizkako baraua gaueko lealdian. Baraualdiko tarte hori 12 ordu luza bada, lehenago afalduz edo geroago gosalduz, haren onura asko nabaritzen has gaitzake (12/12 baraua). Egiaztatu gero zuretzat erabilgarria dela eta zure ohiko errutinan erraz txerta dezakezula, pixkanaka baraualdia 16 ordu luza dezakezu eta otordu guztiak 8 orduko tartean bildu (16/8 baraua).

Nolanahi ere, ezin dugu ahanzi jaten duguna baino askoz ere osasungarriagoa dela gure osasunarentzat ariketa fisikoa maiz egitea, gabez behar adina atsedan hartzea eta benetako janarekin zentzuz elikatzea, janari eta edari ez-osasungarriak saihestuz. Osasuna eta indarra.





SEÑALIZADA

# 09 AZEGI-ETXARRO-SAIGOTS



[WWW.EREMUA.COM](http://WWW.EREMUA.COM)

18 km

583 m

583 m

2 - 3 h

Zubiri

Zubiri, Urtasun, Eugi



DESCRIPCIÓN DE LA RUTA / IBILBIDEAREN DESKRIBAPENA

 AZEGI-ETXARRO-SAIGOTS

Partiendo del centro EREMUA en Zubiri (Polideportivo), cogeremos la NA-138 en dirección Eugi. Al llegar a Eugi, cogeremos la pista que comparte subida con la 08. Urtasun y que conecta con el collado de Gurrutxaga que conecta con Zilbeti. En el collado iremos en busca de las laderas del monte Azegi. Una vez que las rutas se separan, comienza una magnífica bajada en busca del barranco de Etxarro y, a continuación, una preciosa senda de subida en dirección a la antena que está en el puerto de Zilbeti, lugar donde esta ruta y la 10.Saigots uniran sus caminos. Este sector de bajada es coincidente con el GR-225 por lo que se aconseja extremar las precauciones para evitar accidentes con senderistas.

Una vez lleguemos al camino que va paralelo al río Arga, cruzaremos el puente para ir en busca del camino que sube a Saigots. Una vez allí, cogeremos la carretera NA-138 dirección Zubiri. Ruta con dos increíbles bajadas que recorren los rincones más secretos de Esteribar.

 AZEGI-ETXARRO-SAIGOTS

Zubirin EREMUA zentrotik abiatuta (Polikiroldegia), NA-138 errepidea hartuko dugu Eugi aldera. Eugira iristean, igoera 08. Urtasunekin partekatzen eta Zilbetirekin lotzen duen Gurrutxagako muinoarekin lotzen duen pista hartuko dugu. Muinoan, Azegi mendiaren magalen bila abiatuko gara. Ibilbideak bereizten direnean, jaitsiera zoragarri bat hasten da Etxarroko amildegiruntz eta, ondoren, Zilbeti portuan dagoen antena norabidean igotzeko senda polit bat jarraituko dugu. Han, gure ibilbideak eta 10.Saigots ibilbideak bat egingo dute. Puntu horretatik, Saigotsen jaitsiera bila joango gara.

Jaitsiera hau GR-225arekin bat dator, beraz, komenigarria da kontuz ibiltzea aurkitu ditzakegun mendizaleekin istripuak ekiditeko. Arga ibairen parean doan bidera iristerakoan, zubia zeharkatuko dugu Saigotsera doan bidea bilatzeko. Behin han egonda, NA-138 errepidea hartuko dugu Zubiri norabidean.

Ibilbide honek, bi jaitsiera ikaragarriak dituenak, Esteribarko bazter sekretuen zehar eramaten gaitu.



\*RESPECTA LA SEÑALIZACIÓN Y NO CIRCULES FUERA DE LOS CAMINOS MARCADOS • \*SEINALEZTAPENA ERRESPEATU ETA EZ JOAN MARKATUTAKO IBILBIDEAREN KANPONTIK



# 09 AZEGI-ETXARRO-SAIGOTS

